



## ***Ez ohiko kirol jardueretarako diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak.***

### **Zioen azalpena**

Espainiako Konstituzioaren 148.1.19. artikulua dio autonomia-erkidegoek eskumenak har ditzaketela bere gain kirol sustapenaren arloan. Eta 43.3 artikulua dio botere publikoek heziketa fisikoa eta kirola sustatuko dituztela.

Autonomia Estatutuaren 10.36 artikulua araberan, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa du kirol arloan, eta horretan oinarriturik onartu zuen Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea, honako hau dioena 2.1 artikuluan: kirola interes publikoko gizarte-jarduerara da, pertsonak bete-betean prestatzeko eta garatzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta norbanakoak eta gizarteak ondo izateko lagungarria.

Gainera, 3. artikuluan hau dio: Aginte publikoek, bere eskumen-esparruaren barruan, eskubide hori behar bezala gauzatzea bermatuko dute. Horretarako, burutuko duten kirol politikak, besteak beste, kirol-elkartek bideratzea eta sustatzea, bai eta kirol arloko antolakuntza-egitura pribatuak onartzea eta babestea ere izango du oinarritzat

Bestalde, 5. artikulua lurreko historikoetako foru-organoei kirol arloan dagozkien eskumenak arautzen ditu. Zehazki, b) paragrafoan hau dio: Kirola guztientzat sustatzeko kirol-politika onartzea eta udal-administrazioaren lankidetzarekin gauzatzea. Eta g) paragrafoan, honakoa: Lurrean helbidea duten klubei eta gainontzeko kirol-elkarteei laguntza teknikoa eta ekonomikoa ematea. Horretarako, diru-laguntzak eskainiko dira eta elkarteek beren ekintzak diru-laguntzen helburuetara egokitzea kontrolatuko da.

Azkenik, 6. artikulua arautzen ditu kirol arloan udalei dagozkien eskumenak, besteak beste, honako hauek: lurreko historikoetako foru-organoei onartutako eskola-kiroleko programak burutzea; udalaren kirol-ekipamenduak eraikitzea, kudeatzea eta mantentzea; kirol-ekipamenduak egiteko hirigintza tresnak onartzea; kirola egiteko foru programak gauzatzea; eta lege honen, gainontzeko legezko xedapenen eta lege hau garatzeko arauen indarrez dagozkien eskumen eta egitekoak baliatzea, bai eta eskuordetzan eman dakizkiekeenak ere.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.2.m artikulua dio udalak kirol jarduerara edo instalazioei buruzko eskumenak erabiliko dituela, betiere, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan. Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun Legeak (27/2013 legea, abenduaren 27koa) 7/1985 Legea aldatzen du eta 25.l artikuluan kirolaren eta kirol instalazioen sustapena jasotzen ditu.

Kirola finantzatzea udalaren eskumenekoa ez bada ere, Eskoriatzako Udalak kirola sustatzen du herri mailan, eta baditu udal kiroldegi bat, 600 bazkide dituena, eta beste kirol instalazio batzuk. Halaber, herri mailako kirol elkarten ohiko jarduerara finantzatzen du.

Hala eta guztiz ere, kirola sustatzeko asmoz herriko norbanakoek, elkarteek edo kirol taldeek antolatutako beste ekitaldi batzuk ere finantzatzen ditu. Ildo horretan, jarduerara horien finantzazioa Diru-laguntzen Legea egokitzeko asmoz (azaroaren 17ko 38/2003 Legea) oinarri arautzaile hauek onartzea proposatzen da.



## **1. Helburua.**

Oinarri arautzaile hauen xede da Eskoriatzan diru laguntzaren deialdiko urte naturalean ohiz kanpoko kirol jarduerak –jolas izaerakoak nahiz lehia izaera dutenak– antolatzeko norgehiagoka erregimenean ematen diren diru-laguntzak arautzea. Kirol jarduera horien xede da herrian kirola eta boluntariotza sustatzea, onuradunek ezingo dute irabazi asmorik izan eta lagundutako jarduerak herri mailako kirol arloan interes orokorrekoak izan beharko dira.

Jarduerok bat etorri beharko dira Udaleko Kirol batzordearen helburuekin; hau da, kalitatezko kirol jarduerak eskaini herrian eta Eskoriatzako herritarrekin eta kirol elkarteekin lankidetzaz bultzatu.

## **2. Onuradunak.**

Oinarri hauek arautzen dituzten diru-laguntzak honako hauek eskatu ahal izango dituzte: pertsona fisiko edo juridiko taldeek, erakunde publiko nahiz pribatuek, ondasun elkarteek edo bestelako unitate ekonomikoek edo ondare bananduek. Horiek guztiek diru-laguntzak eska ditzakete, nortasun juridikorik izan gabe ere, diru-laguntza hauek arautzen dituzten jarduerak egiteko egoeran badaude, azaroaren 17ko diru-laguntzei buruzko 38/2033 Lege Orokorrak 14. artikuluan aurreikusitako zirkunstantziaren batean ez badaude, eta ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

a) Antolatzaileak, gutxienez, 300.000 euroko estaldura izango duen aseguruia izan beharko du antolatutako kirol jardueraren ondorioz eratorritako erantzukizun zibilari aurre egiteko. Kopuru hori txikiagoa izan daiteke, antolatutako kirol jarduerak dituen ezaugarri jakinen arabera.

b) Eskatzailea klub edo kirol elkarte bat bada, honakoa eskatuko zaio: indarrean dagoen legeriaren arabera erata eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribatua egotea, Identifikazio Fiskaleko Kodea izatea eta zerga-betebeharrak egunean izatea.

c) Norbanakoen kasuan, Eskoriatzan erroldatuta egotea. Kirol elkarte edo taldeen kasuan, egoitza soziala Eskoriatzan izatea eta beraien jarduera eremua Eskoriatza izatea. Salbuespen gisa, bere egoitza Eskoriatzan ez duten edo beraien jarduera eremua Eskoriatza soilik ez duten elkarteak edo taldeak beraien jarduerak edo proiektuak Eskoriatzan garatzen badituzte eta horiek interesgarritzat jo kirol zerbitzuak.

Entitate juridikorik ez duen pertsona talderen batek, kirol jardueraren bat antolatu edo bultzatzen badu, Udalari laguntza eskatu ahal izateko legezko lau ordezkari izendatu beharko ditu gehienez; horiek izango dira ondorio guztietarako taldearen ordezkariak, arduradunak eta jardueraren erantzuleak Udalaren aurrean. Horiek izango dira ere 38/2003 Legearen 13. artikuluan xedatutakoak bete beharko dituztenak.

## **3. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.**

Diruz laguntzeko gastutzat joko dira kirol jarduera egiteko beharrezkoak izan eta ezarritako epean behar bezala zuritutakoak.



Gastuak diruz lagungarri izateko arau orokorrak hiru printzipio ditu:

- Gastuak diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzun behar dio.
- Gastuaren kostea ezingo da izan merkatukoarena baina handiagoa.
- Diru laguntzetarako deialdia egiten den ekitaldi barruan egin beharko dira.

Gastuak kirol jardueraren aurretik egin beharko dira, eta faktura kirol jardueraren ondorengo bi hilabeteetan egingo da gehienez ere.

Halaber, gastu bat diruz lagungarria izan dadin, honako lege-arauetan xedatutakoa bete beharko da: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikulua, azpikontratatzeko eska daitezkeen betekizunei buruzko 887/2006 Errege Dekretuaren 68. artikulua, testu beraren 31. artikulua eta 887/2006 Errege Dekretuaren 83. artikulua.

Ez dira onartuko diruz laguntzeko gastu moduan:

- Legezko balioaz faktura edo egiaztagiri jotzeko eskatzen diren arauzko baldintzak betetzen ez dituzten gastu oharrak edo beste dokumentu batzuk.
- Bazkari, afari edo ostalaritza zerbitzukoak diren beste batzuk, diruz lagundutako ekintzan parte hartzen dituztenekin sortutakoak izan ezik, eta hala denean, eskatzaileak frogatu beharko du gastu hori zuzenean lotuta dagoela diru laguntzaren helburuarekin, eta gainera, behar besteko proportzionaltasuna gorde beharko du finantzatutako osoarekiko.
- Administrazio eta antolaketa barne kosteak.
- Kilometraje, ibilgailuentzako erregai, telefono zerbitzu partikular edo antzeko gastuen kostea.
- Beste udal laguntzaren bat jasotzen duten kirol jarduerekin lotutakoak.

#### **4. Eskabideak.**

Aipatutako baldintzak egiaztatzeko, eskabide-orria (I. eranskina) behar bezala betetzeaz gain, eskatzaileak agiri hauek aurkeztu beharko ditu paperean eta digitalki:

- Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia edo Nortasun Agiri Nazionalarena.
- Pertsona fisikoek, Eskoriatzan erroldatuta daudela egiaztatzeko agiria; eta pertsona juridikoek, IFK eta erakundearen egoitza soziala.
- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudela egiaztatzeko ziurtagiriak. Interesdunek, hala nahi izanez gero, adierazpen bat sina dezakete, eta bertan adierazi berariaz baimena ematen dietela ziurtagiriak egin behar dituzten erakundeei datuok Eskoriatzako Udalari lagatzeko. (II. eranskina)
- Lekukotza, ziurtagiriak edo, hala badagokio, erantzukizunpeko aitortpena, eskatzaileak Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 13.2 artikuluan onuradun izatea eragozten duten baldintzetako bat bera ere ez duela agertzeko.
- Banketxe edo aurrezki kutxa batek emandako agiria, diru laguntza eskatzaileak bere izenean kontu korrante bat duela ziurtatzeko. Dokumentu hori laguntza lehen aldiz eskatzen denean edo kontuan aldaketaren bat gertatu denean aurkeztu beharko da soilik.



- Gutxienez 300.000 €-ko estaldura izango duen aseguruaren agiria (kopuru hori txikiagoa izan daiteke, antolatutako kirol jarduerak dituen ezaugarri jakinen arabera).
- Antolatutako jarduerarengatik beste laguntza batzuk jasotzen dituen edo ez adierazteko zinpeko aitortpena (IV. eranskina).
- Laguntza lehen aldiz eskatzen duten erakunde pribatuek, aurrekoez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroaren ziurtagiria ekarri beharko dute, bertan izena emanda daudela ziurtatzeko.

Eskabide-orriarekin batera, eskatzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu (III. eranskina):

1. Probaren historiala.
2. Txosten teknikoa, eta hor zehaztu beharko dira jarduera antolatzeko zehaztasunak.
3. Jarduera alorra -bertan zehaztuta kirol modalitatea eta jardueraren testuingurua (eskola-kirola, kirol federatua, parte-hartze kirola)-, eremu geografikoa eta, hala badagokio, lehiaketa maila.
4. Nortzuk parte hartzen duten, kategoriak edo adinak zehaztuta.
5. Non eta noiz egingo den.
6. Jardueraren antolaketaren ardura duen pertsonaren edo taldearen fitxa osoa (izen-abizenak, NAN zenbakia, helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa) eta antolaketako zereginen zerrenda orokorra.
7. Txosten ekonomikoa, jardueraren gastuak eta diru-sarrerak zehatz-mehatz deskribatuta.
8. Taldeko edo elkarteko presidentek edo arduradunak sinatutako ziurtagiria; bertan bazkide kopurua jaso beharko da, eta horietatik zenbat dauden Eskoriatzan erroldatuta (Eskoriatzako bazkideen zerrenda erantsi).
9. Eskatzaileak larrialdi plana aurkeztu beharko du ekitaldia baino 15 egun lehenago. Plana jardueraren tipologiaren arabera izango da, eta gerta daitekeen edozein gorabehera hartu beharko du barne.

## **5. Eskaerak tramitatzeko ardura duen administrazio unitatea.**

Eskoriatzako Udaleko kirol zerbitzuak eta kultura batzordeak tramitatuko dituzte eskabideak.

## **6. Eskaerak aurkezteko epea:**

Eskaerak Eskoriatzako Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira (Fernando Eskoriatza plaza z/g), astelehenetik ostiralera, egun baliodunetan, jendearentzako ordutegian edo telematikoki HERRITARREN ATARIAN.

Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita.



Eskaera aurkezteak esan nahi du eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak bete-betean onartzen dituela.

Eskatutako dokumenturen bat dagoeneko Eskoriatzako Udalaren organoren batek bere esku edukiko balu, diru-laguntzaren eskatzaileak, aukeran, heldu ahal izango dio 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35 artikuluko f) atalean ezarritakoari. Horretarako, eskatzaileak adierazi egin beharko du noiz eta zein sailetan aurkeztu edo emanda dituen dokumentuok, eta horiek kontuan hartu ahal izateko ezingo dira bost urte baino gehiago igaro zegokien prozedura amaitu zenetik.

Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunei hamar eguneko epea emango zaie atzemandako akatsak konpontzeko. Epea igarota, horrelakorik egin ezean, eskariari uko egin zaiola ulertuko da, betiere, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan ebazpena eman ondoren.

Eskaerak aurkezteko epea pasatuta Udal kultura batzordeak kirol ekintzaren bat antolatzeko proposamena jasotzen badu, jarduera horri egoki deritzon diru-laguntza eman ahal izango dio, hala erabakiz gero.

## 7. Eskaerak ebaluatzeko irizpideak.

Ondoren azalduko diren irizpideak kontuan izanik, diru laguntza emateko proposamenean sartuko dira 50 puntuko edo gehiagoko balorazioa lortzen duten programa edo jarduerak.

Irizpide horiek kontuan izanik eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duten proiektu edo jarduerari diru laguntzak banatzeko sistema bat aplikatuko zaie eskatzaile bakoitzak lortutako puntuen arabera. Horretarako, diru laguntza modalitate honetarako aurreikusitako diru kopurua onartutako eskaeren puntu guztien batuketaren artean banatuko da. Ateratako emaitzak puntu baten balioa izango du, eta hori eskatzaile bakoitzak lortutako puntu kopuruengatik biderkatuz gero, diru laguntzaren zenbatekoa emango digu.

Diru laguntza eskaerak ondorengo irizpideen arabera baloratuko dira:

<b>Kontzeptua</b>	<b>Puntuak</b>
1.- Proposatutako jardueraren edo programaren ezaugarriak: <b>60 puntu.</b>	
● Aurkeztutako proiektuaren kalitate teknikoa (diseinua, metodologia, baliabideen antolaketa, berrikuntza maila, ikastetxeekin edo beste erakunde edo elkarteekin elkarlana eta abar.) eta egokiera.	20
● Jardueraren interes orokorra, herritar askori eragitearen edo herritar asko erakartzaren aldetik.	10
● Euskararen normalizazioan elkarteak egiten duen ekarpena	10
● Ekimenean emakumeek parte hartzeko sustapen zehatza	10



<ul style="list-style-type: none"> <li>Kirol jarduerak antolatzea eskola-umeentzat, erretiratuentzat edo gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzat</li> </ul>	10
<b>2) Erakunde eskatzailearen ezaugarriak: 15 puntu.</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Erakunde eskatzailearen jarraipena eta egonkortasuna:</li> </ul>	10
<ul style="list-style-type: none"> <li>Herritarrengan ohitura osasuntsuak sortzeko kirol eta kultur jarduera osagarriak antolatzea herritarren parte hartzea sustatzeko.</li> <li>Herriko osasun sareari laguntzea Kirola, Kultura, Turismo, Gazteria, Gizarte Zerbitzuak eta Ingurumen sailek izandako kirol ekimenak antolatzen. Ekimen horiek herritarren parte hartzea sustatzeko jarduerak izango dira, ohitura osasuntsuak sustatzeko helburua izango dutenak.</li> </ul>	5
<b>3) Erakundearen finantza baliabideak: bere errekurtsoen, beste diru laguntza batzuen eta aurkeztutako gastu aurrekontuaren arteko proportzionaltasuna: 25 puntu</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>Erakunde eskatzaileak kultur proiektuari egindako ekarpen ekonomikoa, bai bere baliabideekin bai beste finantza bide batzuk lortuta.</li> </ul>	15
<ul style="list-style-type: none"> <li>Egindako jardueraren kostuak.</li> </ul>	5
<ul style="list-style-type: none"> <li>Gastua Eskoriatzan egitea.</li> </ul>	5
<b>GUZTIRA</b>	100

### 8. Aurrekontua eta partida.

Deialdian zehaztuko da aurrekontu zuzkidura, eta ekitaldi bakoitzerako onartutako aurrekontuan berariaz sartuta egon beharko da.

### 9. Erabakitzeko epea eta jakinarazpena.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren Kultura batzorde informatzaileak aztertuko ditu eskaerak, eta dokumenturen bat faltako balitz, 10 eguneko epea emango da horiek aurkezteko.

Epe hori amaituta eskatutako dokumentazioa aurkeztu gabe, diru laguntza eskaerari uko egiten zaiola ulertuko da.

Instruktorea Kirol saileko ardura duen aholkularia izango da. Instruktoerek txostena aurkeztutakoan Kultura batzordeari, eta batzordearen iritzia ezagutu, erabaki proposamena egingo dio Alkateari, dagokion erabakia har dezan.

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denetik gehienez ere hiru hilabeteko epean jakinaraziko da erabakia.

Epe hori amaituta, eta Udalak ez badu inolako erabakirik hartu eskaeraren baten gainean, eskaera hori ez dela onartu ulertu beharko da.



Erabaki proposamena egin aurretik, Udalak, batzorde informatzailearen bidez, beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarria eskatu ahal izango du.

### **10. Publizitatea.**

Prozedura honen ondorio diren egintzak Eskoriatzako Udalaren web gunean eta iragarki oholean argitaratuko dira.

### **11. Entitate onuradunen betebeharrak.**

Hauek dira entitate onuradunen betebeharrak:

- a. Diru laguntzaren oinarrizko helburuak betetzea edo jarduerak egitea esandako egunetan.
- b. Eskoriatzako udalari zuritzea diru laguntza jasotzeko baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla eta diru laguntza egoki erabili dela.
- c. Indarrean dagoen legediarekin bat etorrituz, Udalak egingo dituen egiaztatze jarduerak onartzea eta horretan laguntzea, kontrol-organoek egin ditzaketen inspekzio eta kontrol-jarduerak erraztuz. Jarduera horiek egin ahal izateko, eskatutako informazio guztia eman beharko du Jarduera horiek egin ahal izateko, eskatutako informazio guztia eman beharko du.
- d. Diru-laguntza eskuratzean eragina izan zuen zirkunstantziaren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, hori jakinaraztea.
- e. Helburu bererako beste diru laguntza batzuk, publikoak nahiz pribatuak, jaso badira, Eskoriatzako Udalari jakinaraztea. Horien berri jakin bezain pronto jakinaraziko zaio Udalari, eta, betiere, jasotako diruei emandako erabilera zuritu baino lehenago.
- f. Hala badagokio, diru-laguntza itzultzea, oinarri-arau hauetan xedatutakoaren arabera.
- g. Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiaztagirak gutxienez bost urtez gordetzea.
- h. Eskatzailea nortasun juridikodun erakunde bat bada, kontabilitate liburuak, dilijentzia eginda duten erregistroak eta behar bezala ikuskatutako gainontzeko agiriak izatea, kasu bakoitzean onuradunari aplikatu dakioken merkataritzako eta arlokako legeriak ezarritakoaren arabera. Halaber, oinarri arau hauetan eskatzen diren kontu egoerak eta erregistro zehatzak ere izan beharko ditu.
- i. Euskararen arloan Udalak ezarritako irizpideak errespetatzea. Diru-laguntzak jasotzen dituzten entitateek euskarari lehentasuna eman beharko diote jarduerak iragartzean.

Eskoriatzako Udalak, euskararen erabilerari dagokionez, ondorengo baldintzak betetzea eskatuko die diru laguntza eskatzen dutenei:

- Diruz lagundutako ekintzetan argitaratzen diren idatzizko testuak euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak erabiliz gero,



euskarari emango zaio beti lehentasuna, testuaren kokapenaren bidez (euskarazkoa gainean eta gaztelaniazkoa azpian) nahiz letra tamainaren bidez (euskarazko testua handiago).

- Ahozko adierazpenak euskara hutsean egingo dira ahal den guztietan. Bi hizkuntza ofizialak erabili behar izanez gero, euskarari lehentasuna emateko, euskarazko mezua emango da lehendabizi, eta gero gaztelaniazkoa.
- 16 urtetik beherakoei zuzendutako ekintza eta testu guztiak (hitzaldiak, idatziak...) euskaraz izan behar dira salbuespenak salbuespen.
- Edozein modutan ere, euskarazko testuen zuzentasuna bermatzeko Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da.

j. Diruz lagundutako jarduera egin ahal izateko beharrezko diren baimen eta lizentzia guztiak eskuratzea eta emandako zehaztapenak betetzea.

k. Gipuzkoako Eskola Kiroleko arautegia, indarrean dagoena, betetzea.

l. Pertsonen oinarrizko eskubideak errespetatzea, jarduerak dirauen bitartean.

m. Diruz lagundutako jarduera edozein delarik ere, antolatzaileak betebeharrak hauek izango ditu:

- Publizitatea –idatzizkoa, entzunezkoa edo grafikoa– egitean, beti azaldu beharko du Eskoriatzako Udalaren laguntza jaso duela, eta Eskoriatzako Udalaren logotipoa txertatu beharko du.
- Udalari idatziz jakinarazi beharko dio noiz, zer orduan eta non izango den jardueraren aurkezpen-prentsaurrekoa, eta gonbidapena egin.
- Udalari idatziz jakinarazi beharko dio zer orduan izango den jarduera, eta beharrezko akreditazio eta gonbidapenak bidali. Sari-banaketa zein orduan izango den ere zehaztu beharko du.

n. Indarrean dauden lege guztiak betetzea, bereziki 3/2007 Legea, Emakumeen eta gizonen berdintasunarena, eta abenduaren 26ko 28/2005 Legea, tabakoari buruzkoa, udal instalazioak erabiltzen direnean.

o. Indarrean dauden legeak betetzeaz gain, oinarri arau hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzea, eta baita diru laguntza emateagatik sor daitekeen beste edozein betebeharrak ere.

## ***12.- Diru-laguntzaren erabilera justifikatzea.***





Diru laguntzari emandako erabilera klausula honetan jaso bezala justifikatu beharko da. Ondoren zehaztuko den dokumentazioa jarduera amaitu eta gehienez ere hilabeteko epean aurkeztu beharko da, eta edozein modutan ere, deialdiko urteko abenduaren 13a baino lehen.

Paperean eta digitalki aurkeztu beharreko dokumentazioa:

#### A. JARDUERAREN GAINEKO MEMORIA

- Txosten teknikoa, eta hor zehaztu beharko dira jarduera antolatzeke zehaztasunak. Jarduera guztien zerrenda, bakoitza zein hizkuntzatan egin den adieraziz.
- Jarduera eremua.
- Nortzuk parte hartzen duten, kategoriak edo adinak zehaztuta.
- Non eta noiz egin den.
- Jarduera hori antolatzearen ardura izan duen pertsonaren edo pertsona taldearen fitxa osoa.
- Egindako publizitatea. Programatutako jarduerari buruzko dokumentazio grafikoa (kartelak, esku-programak, liburuxkak, banatutako material idatzia, prentsa oharrak eta abar).

#### B. TXOSTEN EKONOMIKOA

- Diruz lagundutako jardueran izandako sarreraren eta gastuen balantzea, hasieran aurkeztutako aurrekontuari egokitu dela egiaztatzeke. Hasieran aurkeztutako aurrekontuari zein neurritan egokitu zaion balantzea egiaztatzeke, justifikazioarekin batera hasierako aurrekontuarekiko balantzeak izandako desbideraketa taula aurkeztu beharko da, eta desbideraketarik izanez gero, horiek justifikatzeko txostena ere egin beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe. (sarreraren jatorria eta zenbatekoa adierazi beharko da).
- Jarduerak sortutako gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.

Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta, edo horien fotokopia konpultsatuak. Fakturak udal erregistro orokorrean konpultsatu ahal izango dira. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak, nahiz eta Udalak emandako diru laguntza hasierako aurrekontua baino txikiagoa izan.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.



- Diru laguntzaren onuradunak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZ banakatua edo BEZ barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

Langileen gastuak justifikatzeko:

Jarduerarekin lotutako langile guztien zerrenda, erakundeko ordezkariak ziurtatua; bertan adierazi beharko da bakoitzak egindako lan edo funtzioak, horretan emandako denbora eta kostea.

Kontratuak, nominak, Gizarte Segurantzari kotizatu izanaren buletinak (TC/1 eta TC/2 dokumentuak) edo erregelamenduz horiek ordezkatzeko dituztenak eta PFEZ kontzeptuagatik egindako atxikipenak Ogasunean sartu izanaren dokumentuak.

Salbuespen gisa, lege ezarritako baldintzak (BEZ, autonomoetan alta, JEZ eta abar) betetzen dituzten fakturak egiteko moduan ez dauden pertsonak emandako zerbitzuetan edo egindako lanetan, ordainketa jasotzen duenaren jasotze-agiria onartuko da fakturaren ordezkari bezala, betiere, gutxienez ondoren esango diren datuak baldin baditu, kobratutako kopurua ez baldin bada 75 € pertsonako baino handiagoa eta fakturatzat hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten gastu ohar edo dokumentu guztien batuketan ez bada jardueraren gastu guztiaren % 10a baino handiagoa:

- a) Ordainketa data, jardueraren egunarekin bat etorri beharko dena.
- b) Ordaindutako zenbatekoa.
- c) Ordainketa jasotzen duenaren (izena, 2 abizen eta NAN) eta ordainketa agintzen duenaren identifikazioa.
- d) Zein kontzeptutan agintzen den ordainketa.

Dokumentazio guztia jarduera egin ondorengo hilabetean aurkeztu beharko da Eskoriatzako Udaleko Erregistroan (Fernando Eskoriatza plaza z/g), astelehenetik ostiralera, jendearentzako ordutegian.

### **13. Ordaintzeko era**

Onartutako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

- Diru-laguntzaren %60a, Alkateak diru laguntza onartu eta hilabeteko epean.
- Gainerako %40a, arautegi honetako 12. atalean eskatutako dokumentazioa, organo eskudunak horretarako erabakia eman ondoren, Eskoriatzako Udaleko Erregistroan aurkeztu eta gero ordainduko da.

### **14. Diru laguntzak pilotzea.**

Udalak emandako diru laguntza bateragarria izango da helburu bererako emandako beste edozeinekin. Dena den, diru-laguntza berez edo beste sarrera batzuei batuta ere ezingo da izan inoiz diruz lagundutako jardueraren kostea baino handiagoa. Diru-laguntzek, laguntzek, sarrerek edo sortutako baliabideen baturak jardueraren kostua gainditzen badu, onuradun izan den



entitateak itzuli egin beharko du jardueren gastu osoaren gaineratik jasotakoa. Bi administrazio edo gehiagoren diru-laguntza jasoz gero, goian aipatutako soberakinaren itzulketa proportzionalki egingo da, administrazio bakoitzak emandako laguntzaren arabera.

### ***15. Diru-laguntza kentzea eta itzultzea.***

Jarraian zerrendatuko diren kasuetan, itzuli egin beharko dira emandako diruak; baita diru-laguntza ordaindu zen unetik itzultzea erabaki den unera arteko berandutze-interesak ere:

- a) a. Jasotako diruari emandako erabilera, garaiz eta behar den moduan, ez justifikatzea.
- b) b. Diru-laguntza ukatu egingo da, eskatutako dokumentazio guztia adierazitako epeetan aurkezten ez bada. Era berean, datuak ezkututzen edo faltsutzen badira, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da.
- c) c. Diru-laguntzak ematean onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- d) d. Diru-laguntzaren helburua, guztiz edo zati batean, ez betetzea.
- e) Kontrol-erakundeei beraien jarduera eragozte eta oztopatzea.

Kudeaketa, inspezioa eta kontrola egiteko garaian diru-laguntza modu desegokian jaso edo erabilia izan delako zantzuak agertuz gero, espediente bat irekiko da horren berri emateko, eta beharrezko diren kautelazko neurriak hartuko dira.

### ***16. Araubide juridikoa.***

Oinarri hauetan arautu gabekoetarako Diru laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta lege horretako erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua aplikatuko dira.



## ***Bases reguladoras de la concesión de subvenciones para las actividades extraordinarias en el ámbito deportivo.***

### **Exposición de motivos**

El artículo 148.1 apartado 19 de la Constitución Española dice que las CCAA podrán asumir competencias en materia de promoción del deporte. Y el artículo 43.3 dice que los poderes públicos fomentarán la educación física y el deporte.

La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene, a tenor del artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, la competencia exclusiva en materia deportiva y en base a ello aprobó la Ley 14/1998 de 11 de junio, Ley del deporte del País Vasco que en su artículo 2º .1 dice: que el deporte constituye una actividad social de interés público que contribuye a la formación y al desarrollo integral de las personas, a la mejora de su calidad de vida y al bienestar individual y social.

Además en su apartado tercero dice: que los poderes públicos, en el ámbito de sus respectivas competencias, garantizarán el adecuado ejercicio del citado derecho mediante una política deportiva basada entre otros en la ordenación y el fomento del asociacionismo deportivo así como el reconocimiento y protección de las estructuras organizativas privadas del deporte.

Por su parte el artículo 5 regula las competencias de los Órganos forales de los territorios históricos en materia deportiva y concretamente en su apartado b, dice que corresponde a las Diputaciones Forales la aprobación y ejecución, esta última en coordinación con la Administración municipal, de la política deportiva dirigida a la promoción del deporte para todos y en el apartado g) también atribuye a la mismas la asistencia técnica y ayuda económica a clubes y demás asociaciones deportivas domiciliadas en su territorio, concediendo al efecto las subvenciones oportunas y controlando la adecuación de su actividad a la finalidad subvencional.

Finalmente es el apartado 6 el que regula las competencias de los Municipios en materia deportiva, relegando la misma a la ejecución de los programas de deporte escolar aprobados por las Diputaciones, la construcción, gestión y mantenimientos de los equipamientos deportivos, la aprobación de los instrumentos urbanísticos para posibilitar los equipamientos deportivos, la ejecución de los programas forales para la práctica deportiva y el ejercicio de cuantas otras competencias y funciones les estén atribuidas en virtud de la presente ley y demás disposiciones legales y de las normas reglamentarias que la desarrollen, así como el ejercicio de todas las competencias y funciones que les puedan ser delegadas.

La ley de Bases de Régimen Local 7/1985 en el artículo 25.2.m dice que el Municipio ejercerá, en todo caso, competencias, en los términos de la legislación del Estado y de las CCAA en actividades o instalaciones deportivas. La Ley 27/2013 de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local que modifica la Ley 7/1985, recoge en su artículo 25.l la promoción del deporte e instalaciones deportivas.

A pesar de no ser una competencia propia del Ayuntamiento la financiación del deporte, el Ayuntamiento de Eskoriatza, promueve el deporte a nivel municipal, para lo cual cuenta con un Polideportivo municipal con 600 personas abonadas y otras instalaciones deportivas. Asimismo financia la actividad ordinaria de los clubes deportivos de ámbito municipal.



